



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2008-10-17

VIURTEA 1.536.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Aurkezpen ekitaldia egin zuten atzo: Egañak bertsoa bota zuen agintariak beheran entzuten zuten artean. R. CALVO

«BERTSOLARITZAREN ORTUA» ZABALDU DUTE SUBIJANA ERAIKINEAN

VILLABONA Bertsozale elkartearen egoitza berria aurkeztu zuten atzo jendaurrean; Xenpelar Dokumentazio zentroa ere dago bertan 6

Kilometroetako antolatzaileek helburuak bete dituztela diote

IRURA Balantze «oso positiboa» egin dute talde iraunkorakoek; «eskerrak» eman dituzte 4

«Kultur saskia» ekitaldiz blai hilabete eta erdiz

ALEGIA 'Udazkenean kultura' aurkeztu zuten atzo azaroaren 30era arte izango diren ekintzekin 7

Hamaikagarren
edizioan,
52 postu izango
dira etzi Azoka
Berezian

Lasa eta Zabala
gogoan izan
dituzte euren
erailketaren
25. urteurrenean

ZIZURKIL «Azokan erostearen
garrantzia» azpimarratu du
Marian Lazkano alkateak 3

TOLOSA Lore eskaintza
egin zieten senide eta
lagunek Benta-Haundin 7

txokoa
h

“El Caserio” zartzueta ikusteko
2 sarrera zozketan
deitu eta eskuratu



Larunbata • urriak 19
20:30ean
Tolosako Leidorren
Tolosako Orfeoiak eskainita



Z Zurea da hitza

Atal honetan zuen keak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Postu libreetako ehiztariaren keza

Urriaren 11n Diputazioko basozainak etorri ziren Larraulgo eta Asteauko postuetara eta dozena bat ehiztariari izenak hartu zizkiguten, esanez urriaren 12a arte ezin genuela tiroekin egin.

Gure postuak libreak dira, hau da, ez da zozketarik izaten, inguruko beste herrietan gertatzen den bezala. Zozketako postuetan dauden ehiztariak irailaren 27tik ehizean aritzeko aukera daukate, baina guri ez digute uzten urriaren 12a arte ehizean aritzen. Guk ez genekien «lege» hau zegoenik eta ez dugu uste eskubiderik dagoenik zozketa bidez hartutako postuetan gu baino lehen ehizean postuak.

Zergatik dago ezberdintasun hori? Lizentziak berdin ordaintzen ditugu. Gureustez Larraulen eta Asteasun dauden postuak zozketakoa bihurtu nahi dituzte bai Gipuzkoako Federazioak eta bai Diputazioak ere, beraiek negoziatzen egiteko. Gure postuak libre baldin badira zergatik izan behar dugu mugatuta ehizean hasteko epea? Libre ez direnak libre daukate ehizean aritzeko eta benetan postu libreak ditugunak mugatuta gaude. Honek ez du ez hanka ez buru eta hau soluzionatzeko beste gauza batzuk bezala Euro para joan behar al dugu? Gure alde-tik joan behar bagara joango gara. **Larraulgo eta Asteasuko postuetako ehiztariak.**

Ez dago eskubiderik

Orain arte, Ihauteriak eta San Juanak ziren herriko festa egunak. Baña gaur egun jada, edozein garaitan txaranga dabil tolosako kaleetan.

Nire keza ez datxaranga dabilela-

ko, baizik gaueko edozein ordutan jotzen dutelako. Pasa den larunbatean, ordu erdiz egon ziren nire etxe azpian jo eta jo. Eta jendea kantari noski. Gañera norbaiten urtebetzearen, eta hari ere abestu zieten.

Eta nire etxean haur txiki batekin, lo egin ezinik.

Noski etzirela arratsaldeko bos-tak. Gauerdiko 01.30ak ziren. Eta nire ustez hau ez da oso normala. Bestela ere nahiko soinu baditugu ba, hau ere gehitu gabe.

Ihauteri, San Juan, Eguberri, edo garagardo azoka... hori dena onartuko nuke. Baña edozein larunbatean ia ez....

Ez dakit ados egongo zaretzen edo ez... baña nire keza behintzat horiez geratzen da.

Alde Zaharreko bizilagun bat.

Zinemako bonoekin oso gustura

Aupa! tolosar bat naiz eta komentatu nahi nuke oso gustura nagoela Tolosako Leidorren zinema ikusteko atera duten eskaintzarekin. Gaur egun zinemara joatea luxuzko zerbait bihurtu da (bi lagunek 13 euro ordaindu behar dituzte) eta honek zinea gustatzen zaigunontzat irtenbide bikaina da. Zorionak ekimena honen ideia eduki zuenarentzat edo zutenentzat. Horrelako gauza gehiago pentsatu beharko ziren eta ez dirua nondik kendu tolosarrei... **Eider.**

Trafikoarekin duda batzuk

Duda batzuk dauzkate trafiko aldaketan inguruan. Imaginatzen det jendeguztia kejarzen hasiko dala eta ez da nere asmoa baina planoak beindatzen eon naiz eta erokeria da egin behar dutena. Badakit, obrak egin

behar direla baina beharrezkoa al da zati guztiak batera egitea? Eta biala zergatik ez dute jarriko bi norantz-kotan? bertako aparkalekuko ei sartzan parking berri horretan kotxea! eta OTA bezala kobratu eta kito! Ez dakit, baina urtebete asko iruditzen zait Tolosa hankaz gora egoteko...

Asier.

Tolosako trafikoa Iruraino

Eguneko ordu puntualetan, gasolindegirainoko ilarak sortzen dira Tolosako lehen sarrera horretan, Belateko semaforoak oso denbora gutxi egiten baitu berdean. konturatu naiz Donostitik datorren jende asko ohitura hartu dula Tolosatik ordez Iruratik sartzeko, barrualdetik zuzenean Belatera ateratzeko eta ilara horiek ez sufritzeko. Irurak kale bakarra dauka eta segituan ko-

lapsatzen da. Ez dakit, baina zerbait egin beharko litzateke hau ez pasatzeko...

Jon.

Alliri pasealekutik... berriro

Urtarrilean-edo idatzit nuen lehen-dabiziko aldiz gai honene inguruan. Ia-ia urtebete pasa da eta berdinetan gaude. Alliri pasealekuko baldosa guztiak altxata daude, gaizki ipinita. Euria egiten duenean bustitzeko arriskua oso handia da, baldosa okerren bat zapalduz gero. Gainera gero dena lokatzez-eta geratzen da. Iruditzen zait keza udalaxtera ere bideratuta dagoela eta ez da ezerrez egin. Hor bizi naiz ni eta gainera iruditzen zait gero eta okerrago dagola, gero eta baldosa gehiago ari direla altxatzen. Mesedez, dagokionari.

Tolosar bat

B Blogteka**Euri jasa Tindouf inguruan**

Tindouf inguruan oso gutxitan egiten du euria, eta eskerrak, euria egiten duen bakoitzean ekaitza sortzen baita. Lurra hain da lehor euria egitean ibaiak eta putzuak berehala sortzen direla eta hauek bidean harrapatzen duten guztia txikitzen dute.

Hori da azken aste honetan gertatu dena, bi egunez egon da euria egiten eta kaltetu gehienak Smara eta Auserd probintzietan gertatu dira. Nahiz eta kalte materialak handiak izan ez da kaltetu pertsonal izan.

Kaltetuek kalteturiko etxeak

utzi behar izan dituzte, baita duten material eskasia ere eta bizilagunen etxeetan babestu behar izan dute ekaitza pasa den bitartean.

Ilargi erdi saharauariaren hitzetan 1771 eraikin izan dira kaltetu, etxeak, eskolak, ospitaleak... Hauetatik 1424 Smara probintzian izan direlarik.

Gobernu eta gobernuz kanpoko elkarteei deialdia burutu diote ahal den laguntza gehiena eman dezaten, ekaitza etorri baino lehen nagoko egoerara lehen bait lehen itzul daitezten.

Harea eskuetan (Tolosaldea Sahararekin)

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/sahararekin>

K Kirol jarduera**Gaur****Saskibaloia**

■ Usabalgo goiko kantxan, 19:00etan, TAKE- La Salle jubeniil mutilen partida jokatuko dute.

Bihar**Saskibaloia**

■ Usabalgo goiko kantxan, 10:00etan, kadete mutilen TAKE Tovar- Ordizia partida ikusgai.

■ Usabalgo goiko kantxan, kadete nesken partida 12:00etan: TAKE-BKL.

Areto-futbola

■ Areto-futbolearen, Maila Nazionalen, Laskorain-Comodon taldeen arteko partida izango da ikusgai, 18:00etan Usabalgo goiko kantxan.

Mahai tenisa

■ Girm gelan, Usabal eta Cai Santiago taldeen arteko partida, 16:30etik aurrera.

Futbola

■ Tolosako Usabalgo futbol zelaian, infantilen mailan, Tolosa CF-Zarauz taldeen arteko norgehiagoka izango da jokoan, 10:00etik aurrera.

■ Usabalgo futbol zelaian, kadeten mailan, Tolosa CF eta Bilbao Ath taldeen arteko partida, 11:00etan.

■ Usabalgo futbol zelaian, Lurraldeko 2.go Mailan, Amarotz eta Danena taldeen arteko lehia, 15:30etan.

■ Usabalgo futbol zelaian, emakumezkoen mailan, Tolosa CF eta Ordizia taldeen arteko partida jokatuko dute, 17:30etik aurrera.

■ Tolosako Berazubi zelaian, Gorengeon Mailan, Tolosa CF-Vasconia partida izango da jokoan, 16:30etan.

Urriak 20, astelehena**Pilota**

■ Tolosako Beotibar pilotalekuan, 16:30etan, Lehena Mailako Lau t'erdiko Txapelketa: Bengoetxea VI.-Olalabal.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

XI. ediziora iritsiko da etzi herriko Azoka Berezia

Zizurkil » Azokan erostearen garrantzia nabarmendu du alkateak; 52 postu izango dira, zazpi herriko baserrietakoak.

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo Azoka Berezia bere XI. ediziora iritsi da. Etzi izango da eta atzo egin zuen aurkezpena Marian Lazkano alkateak. Baserriko produktuen eta artisauen postuak izango dira eguneko protagonista nagusiak eta Lazkanok azokan erostearen garrantzia azpimarratu zuen beste behin: «Azoka egitearen arrazoi nagusia baserriarrek beraien produktuak saltzeko aukera izatearena da».

52 postu izango dira guztira eta horietatik zazpi izango dira Zizurkilgo baserrienak. Andrezketa, Iruña, Loidi, Menditarte, Olatza, eta Ugarte baserriek beraien produktuak eta Pello Argaiak ezti eta eztiak jarriko dituzte. Baratzako produktuak ere salduko dituzte San Millan ikastetxeak eta Pedro Mari Otaño ikastetxeak. Horretaz gain, 22 artisau postu jarriko dituzte eta 17 janari postu. Gozoen postu gehiago izango dira, iazko arrakasta ikusi eta gero.

Segundo Montes en alde

Aurtengo berritasunetako bat Pedro Mari Otaño eskolako guraso elkarteak El Salvadorreko Segundo Montes Komunitatearen aldeko postua jarriko duela da. Bertan, taloak eta gozoak salduko dituzte eta bigarren eskuko materiala ere salgai izango dute.

Bestelako postuak ere izango dira. Zizurkilgo Udalak argitaratutako materiala izango du, Manuel Larremendi Bazkunak idatzizko euskal materiala eta bidezko merkataritzako postu bat ere izango da.

Azokaz gain, bestelako ekitaldiak ere izango dira: kantu jira, haurrentzat jolasak goiz eta rratsaldean eta Txapeldun txakurren erakusketa eta emanaldia. Ekitaldien artean ere nabarmendu beha-

rrekoa Zizurkilgo janari postu onenari emango dioten saria izango da. 13:00ak aldera egingo dute sari banaketa.

Bekaren aurkezpena

Azoka Berezian aurtengo Zizurkilgo Barrena Bekaren jendeurreko aurkezpena egingo dute. Bekaren gaia Zizurkilgo euskara jaso eta ikertzea izango da. Interesa-

tuetu hilaren 24era arte dute aukera proiektuak aurkezteko. Ikerlana egiteko beka 3.000 eurokoa izango da eta proiektu bakarra sarrituko dute.

Ohi bezala, autobusa doan izango da egun guztian zehar Bulandegi bideko errotondan edo Zubiaurrietatik Zizurkil Goiko plazara. Jendeak zerbitzu hori erabili dezala eskatu du Udalak.



Azoka Berezia aurkezpena egin zuen atzo Marian Lazkano alkateak. i.e.

EUSKADIKO EKONOMIA
INDARBERRITZEKO AKORDIOA

OSASUN EKIPAMENDU BERRIAK

Oso gertu sentituko duzu

Osasun ekipamendu eta azpiegitura berrien proiektuak. Gipuzkoako ekonomia eta enplegua indarberritzen lagunduko digu. Baina askoz gehiago ere badaude: hezkuntza zentroen hobekuntza, Tabakalera Kultura Garakidearen Nazioarteko Zentro berria, Pasaiako eraberritzea, babes ofizialeko etxebizitzak...
Euskadiko Ekonomia Indarberritzeko Akordioa.
12.800 milioi eurotik gorako inbertsio publikoa Euskadin datozen 4 urtetan.
Eta zuk, oso gertu sentituko duzu.

Logoak: Euzko Legebiltzaria, Euzko Gobernua, Euzko Legebiltzaria, Euzko Gobernua, Euzko Legebiltzaria, Euzko Gobernua, Euzko Legebiltzaria, Euzko Gobernua.

» EGITARAUA

■ 11:00-14:30 eta 16:00-19:30.

Baserriko produktuen eta artisau produktuen azoka.

■ 11:00. Kantu jira. Azoka euskal kantuz alaituko dute.

■ 12:00. Haurrentzat jolasak udal txakurren aurrealdean.

■ 13:00. Zizurkilgo Azoka Bereziko saria Zizurkilgo janari postu onenari eta Zizurkilgo Barrena Bekaren aurkezpena.

■ 17:00. Haurrentzat poniak eta jolasak.

■ 19:00. Txapeldun txakurren erakusketa eta emanaldia.

Jarritako helburuak bete dituztela diote Kilometroetako antolatzaileek

Irura » Azken bilera egin dute talde iraunkorrekoek eta balantze «oso positiboa» egin dute batzordeko buruek.

IMANOL GARCIA

Kilometroak 2008ko antolatzaileek talde iraunkorraren azken bilera izan berri dute, batzordez batzorde festa erraldoiaren balantzea egiteko. Josune Aiestaran Irurako Ikastolako zuzendariak azaldu duenez, balantze «oso positiboa izan da» eta «jarrita genezkan helburuak bete ditugu».

Bilera horretan batzorde buru guztiak «oso gustura» azaldu ziren Kilometroak 2008 nola joan den ikusita. Jendea kopuruari dagokionez, milaka lagun izan ziren. Aiestaranek nabarmendu du batez ere trena erabili zela Irura eta Anoetara iristeko. «Nahiz eta 5.000 aparkaleku prestatuak izan, oso gutxi erabili ziren, jendea trenez etorri zelako. Azpimarratzekoa da koordinatzaileak harrিতuta zeudela, Anoetako geltokia presta-

tzen hasi zirenenan jendea bueltatzeko, oraindik jendea jarraitzen zuela zirkuitura iristen».

Salmenta kontuei dagokionez, esaterako, auto zozketaren txartel asko saldu ziren bai urte guztian zehar eta batez ere egun nagusian. Saritutako zenbakia 45467 da eta oraindik ez da azaldu sariduna. Arropari dagokionez, «oso ondo» saldu zen egunean bertan eta urtean zehar «oso ondo egin da lana», azaldu du zuzendariak, «bai Irurako biltegian, bai Tolosako dendan, bai irteeretan ere».

Jantoki bereziek ere «oso ondo funtzionatu zuten». Anoetako kiroldegian egindakoan mila bazkari zerbitzatu ziren. Anoetako frontoian eta Irurako frontoian 500 bazkari eman ziren, hau da, aurreikusitakoa. «Ondo prestatuta eta kopuru aldetik ere ondo zegoela azaldu ziguten», dio Aiestarenek. «Nabarmentzekoa da Anoetako kiroldegian egindako bazkaria zeliakoentzat egokia zela eta zeliako-en elkartetik zoriondu gaituzte honeratik». Gune ezberdinetan izan ziren txosnek ere ondo funtzionatu zuten.



Jende ugari bildu zen Kilometroetan, Irurako plazan, esaterako. NEREA URBIZU

Berritasunak eta eskerrak

Bizikletentzako aparkalekuarengatik «eskerrak eta zorionak eman zizkiguten», dio Aiestarenek. Edoskitze gunei dagokionez, bi jarritu zuten, baina arratsalde partearako beste bat inprobisatu behar izan zuten Irurako Ikastolaren

eraikin berrian. «Eskerrak ematen zizkiguten eta hunkigarria izan zen», adierazi du zuzendariak.

Aiestaranek nabarmendu du ere «giro oso ona» izan zela eta ekitaldiekien «asmatu zela. Aipatu nahi dugu ere megafonia oso ondo aritu zela zirkuitu osoan eta hedat-

bideetatik jaso dugun jarrera ona. Guretzat lagungarria izan da urte osoan eta egunean ere». Zirkuituari dagokionez ere «oso polita zela esan ziguten», azaldu du.

Azken urte eta erdian «langogorra» egin dutela azaldu du Aiestarenek eta «ondo antolatua eta ondo koordinatua» izan dela. «Horrek ere gero ekartzen du bere emaitza». Egun nagusien muntai bi aste lehenago hasi zen eta «orduan lasai zebiltzan egunari begira». Desmuntai eta garbitasuna «oso azkar eta egoki egin da», gaineratu du Aiestaranek. «Egunean bertan garbitasunekoek Anoeta lehenetsi zuten eta astelehenean herriarrek, gurasoek, ikasleek herria garbitu genuen eta asteartean bazirudien ez zela ezer izan igandean».

Bi mila lagun aritu ziren lanean egun nagusian eta horiei eskerrak eman dizkiete antolatzaileek. Anoetako herriari zein ikastolari eta Tolosako herriari zein ikastolari eta Inmakulada ikastetxeari ere eskertu diote urtean zehar egindako lana. «Egunerako Ibarako, Villabonako eta Andoaingo Ikastolako jendea lanean aritu ziren eta gainera ibartar pila batek izena eman zuten. Eta, noski, Irurako herriak egin duen izugarritzko lanagatik. Gure aldetik eskerrak ematea», zehaztu du ikastolako zuzendariak.



Elkarrekin jolasteko aukera

ANOETA » Kutxak antolatuta eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren baitan dagoen Xiba taldeak sustatuta, atzo eskualdeko hainbat ikastetxeko ikasleak bildu ziren Anoetan hainbat joko eta jolas egiteko. Giro ona nagusitu zen ekitaldian. I. GARCIA



Ipuinen eta meriendaren ordua

ANOETALDEA » Galtzaundi euskara elkateak antolatuta, Idoia Santxez ipuin kontalaria izan zen atzo Iruran eta Hernialden. Azken herri honetan, Udalak merienda eman zien haurrei (argazkian) Udal Liburutegian ipuinak entzun aurretik. I. GARCIA

Andoni Otegi presoa Espainiaren esku utzi du Frantziak

Leaburu » 33 urte ditu Otegi eta Frantziaren ezarritako zigorra bete ondoren atzo eraman zuten Espainiara.

ERREDAKZIOA

Frantziak Espainiaren esku utzi zuen atzo Andoni Otegi euskal preso leaburuarra eta Audentzia Nazionalera eraman dute. 33 urteko gaztea 2002. urtean atxilotu zuen Frantziako polizia eta han ezarritako zigorra bete ondoren eraman dute Espainiara.

iragarkilaburrak.com

EUSSALDEKO IRAGARKI LABURREN OTAZIA

zure-irragarkia tolosaldetik eta leitzaldetik euskal herrira
tolosaldeko hitza. iragarkilaburrak.com

iragarkia jartzeko: www.tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com/ 943-65 56 95/ Araba etorb. 5 atzea • Tolosa / Herriko plaza 1 • Leitza
webgunean, ostiralero Euskal Herri osoan paperezko edizioan eta HITZA egunkarian argitaratuko da

Herrialde indigenak gerturatzeko, zinema saioak

Gizartea » Mugarik Gabe erakundeak antolatuta, Zinema eta Kooperazio emanaldiak izango dira datorren astean, Tolosan.

ERREDAKZIOA

Mugarik Gabek, Herri Indigenen Zinema eta Komunikazioaren Koordinakunde Latinoamerikararen korrespontsala den aldetik, ondorengo herrialdeetako errealtate indigenak ikusteko parada eskaintzen du: Mexiko, Noruega, AEB, Ekuador, Sahara, Senegal, Australia, Guatemala eta Brasil. Oaxacan (Mexico) antolatutako Herri Indigenen Zinema eta Bideoaren Nazioarteko VIII. Jaialdian aurkeztu ziren ikus-entzunezko materialen zati bat izango da.

Emanaldiak astelehenean hasiko dira, 20:00etan, eta ostirala bitartean egunero izango dira saioak. Tolosako Zine-forumaren elkarlanari esker, zine forum saio bat izango da Leidorren. Gaintzeko proiektzioak berriz, Kultur Etxean izango dira, eta sarrera doako izango da.

Asko esateko duten filmak

Astelehenean, 20:00etan hasiko da lehen emanaldia. Egun horretan, Mexiko, Australia, Brasil eta Ekuadorreko filmak izango dira ikusgai.

Fabioren lanak osasun politikei buruz ohararazten du. Izan ere, politika hauen ardatz nagusia jaiotza tasaren kontrola da. Horrela, urratu egiten dute Mexikoko emakume behartsuena eta zokoratuen duintasuna.

Bigarren emanaldia Australiatik dator. Filmeko protagonista, fameliak eta lagunak bazterturik, Della gasolina arnasten hasten da eta bere ahizpa uzten du erabaki zail bat hartuta. Lan hau egiteko ez zen aktorerik erabili, komunitateko jendea besterik ez, eta herriarekin batera zazpi urtez egindako lanaren emaitza da.

Eguneko hirugarren saioan, protagonistak kontatuko du, zu-

» ZINEMA ETA KOOPERAZIO EMANALDIK

Urriak 20, astelehena 20:00etatik aurrera

■ **'Eso viene sucediendo'**. Mexiko (2002). 12 minutuko iraupena du J. Fabiola Gervasioren lanak.

■ **'Inhaladores'**. Australia (2005). 15 minutuko iraupena du David Vadivelooren filmak.

■ **'Mi primer contacto'**. Brasil (2005). Mari Correa eta Kumare Txicao dira 56 minutuko film honen egileak.

■ **'Soy defensor de la selva'**. Ekuador (2004). 23 minutuko iraupena du Eriberto Gualingaren lanak.

Urriak 21, asteartea 20:00etatik aurrera

■ **'Voces del desierto'**. Sahara (2005). 58 minutuko iraupena du Javier Perez eta Jesus Alvarezen lanak.

■ **'Guatemala tierra arrasada'**. Guatemala (2004). Jose Gayak zuzendu du 42 minutuko iraupena duen film ahau.

riak lehendabiziko aldiz nola agertu ziren Brasilera.

Azkenik, asteleheneko emanaldiekin amaitzeko, Ekuadorreko film bat izango da ikusgai Kultur Etxean. Sarayakuko kitxuan dago kokatua. Hau, tradizio, kultura eta bizimoduari eusten dion Ekuadorreko Amazonasko komunitatea da. 2002. urtearen erdialdean, Argentinako CGC petroleo enpresa bertan sartu zen komunitatearen baitan gabe prospekzio kimiko bat egitera. Herri txiki bat, erraldoi baten aurka.

Asteartean beste bi film proiektatuko dituzte Kultur Etxean. Lehendabizikoa Saharan dago kokatua. Bertan ikusi daiteke, nola bi mexikarrek, 10 egunetan ibilbide osoa zeharkatu zuten, haien lu-

Urriak 22, asteazkena 20:00etatik aurrera

■ **'Lo mas dificil es el amor'**. Noruegia (2005). Suvi West da 25 minutuko iraupena duen film honen zuzendaria.

■ **'Sueños binacionales'**. Mexiko (2005). 30 minutuko iraupena du Yolanda Cruzek zuzendutako lanak.

■ **'La cabalgada espiritual'**. AEB (2004). Vincent Blackhawk-ek zuzendu zuen ordubeteko iraupena duen lan hau.

Urriak 23, osteguna 19:15 eta 21:15ean

■ **'Sueños del desierto'**. Txinako film hau estreinatuko da Zine-Forumean.

Urriak 24, ostirala 20:00etatik aurrera

■ **'El precio del perdón'**. Senegal (2001). 87 minutuko iraupena du Manssur Soraren lanak.

rraldea, jantziak, durbanteak, algarak eta irribarreak ezagutzen.

Hurrengo emanaldian Guatemalako erresistentziako populazio komunitateetako indigenak izango dira protagonista. Guatemalako bake akordioak 1996. urtean izanpetu ziren, 36 urteko gerra zibila eta 200.000 hildako atzean utzita. Dokumental honek 80ko hamarkadaren hasieran izurrik erabatekoena jasan behar izan zuten lekukoie ematen die hitza.

Astelehen eta astearteko saioen ostean ere izango da zer ikusirik Tolosako Kultur Etxean eta Leidor zineman. Beste bost film eskainiko dituzte Mugarik gabe erakundeak, herri indigenak gertuagotik ezagutzeko aukera izan dezaten tolosarrek.

max
cuenta | kontua

Udazkenean ere erortzen ez den interesa

5
% U.T.B.

ERABILGARRITASUNAREKIN
ETA KOMISORIK GABE

Gehienezko zenbatekoa 10.000€

Interesa % 5,0 U.T.B. (IVA 0%) (mensual)
Guztira 100€ dimentsioan 10.000€ zuzendutako
Diruztekin eta 100.000€ egutegi gaitasunarekin
renbortzen da (2008)
Finantziazioa: % 5,20 U.T.B. (IVA 0%) (mensual)
Finantziazioa 10.000€ baino gutxiagoan

CAJA LABORAL
LUSKADIKO KUTXA

Autonomoak Hasi Dira
Estatu berriaren aldaketak bereganatu

AGENCIAS ROS

2008aren... hasi dira... gaitasunarekin... Autonomoak Hasi Dira... Estatutu hori joan den urtearen 12an jaiotzen indarrean, eta bere... lan egiten duten... ita soldatagileko... gaitasunarekin parekatzea du... horretarako Erregimari Orokorrekoarekin parekagarriak izango diren handiko berrikuntza jaso da bere kontura lan egiten duten langileen artean irudi berri bat zehazteko, irudi berri horri "ekonomikoki mendekoa den langile autonomo" izena eman zaitza, eta... barnean sartzen dira... sarreraren % 75 edo gehiago bezero batetik bakarrik lortzen duten autonomoak. Asko direlako arautu nahi izan du Estatuak kolektibo hori, langile autonomo guztien artean % 10 hor sartzen direlako, eta bereziki bat egin

TOLOSA
25
20:30

Teresa Salgueiro

Pausoka Akademia

ERREPORTZU KLASEAK:
(materia guztiak)
Lehen hezkuntza, D.B.H. eta Batxilergoa

HIZKUNTZAK:
Ingelera, Frantsesa, Italiara, Arabiera, Euskara eta Gaztelera atzerriarrentzat

TALDEKAKO ETA BANAKAKO KLASEAK
ANIMA ZAITEZ,
IRAKASLE EZIN HOBEAK DITUGU!

Martin Jose Iraola, 2 behea • TOLOSA
mug.: 686971962 • Tel.: 943 67 24 48



Mikel Irizar, Maixel Arrieta, Markel Olano, Miren Azkarate eta Iñaki Murua EHBEn egoitza berriaren aurkezpena egiten. R.CALVO

«Bertsolaritzaren ortua» inauguratu dute Subijana ehun fabrikari

Villabona » Bertsozale Elkarteak egoitza berria aurkeztu zuen atzokoan; Xenpelar Dokumentazio Zentroa ere bertan dago.

REBEKA CALVO

«Bertsolaritzaren ortu», «bertsozaleen topaleku», «euskar ahozko tradizioaren bilgune»... Horrela definitu zuten, besteak beste, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak egoitza berria, Villabonako Kale Nagusiko Subijana etxean kokatu dutena, hain zuzen.

Atzo inauguratu zuten egoitza eta bertan ez zen inor falta; Villabonako Maixel Arrieta alkatea, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua den Miren Azkarate, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia, Kutzako ordezkariak...

eta nola ez hainbat eta hainbat bertsozale eta, orokorrean, kultura munduko aurpegi ezagun asko.

Andoni Egañak eman zion hasiera inaugurazio ekitaldiari erai-kineko balkoi nagusitik botatako betsoarekin, bertan baitago Nikolas Albak egoitza berriarentzat egindako *Mintzola* eskultura.

Lau solairu

EHBE egoitza berriak 900 metro koadrotan banatutako lau solairu ditu; behe solairuan, harreran, aretonagusia eta bilera aretoak daude, lehen solairuan Xenpelar Dokumentazio Zentroa dago, bigarren solairuan bulegoak eta hirugarren eta azkenekoan, aldiz, liburutegia, Ikerkuntza eta ikus-entzunezkoen aretoak bildu dituzte.

Garai bateko ehun fabrika birmoldatzeko hilabeteak eman dituzte lanean eta guztira 1.847.000

euroko aurrekontua izan dute horretarako. Horiatik 861.000 euro Gipuzkoako Foru Aldundiak jarri ditu, 750.000 euro Eusko Jaurlaritzak eta beste 236.000 euro Kutzak. Eraikina, gainera, Bertsozaleen bilgune izatearekin batera Mintzola Fundazioko egoitza ere izango da, hau da, urte amaierarako abian izango duten ahozko adierazpideen inguruko ikerketa eta zabalkunde proiektuaren egoitza. Hori horrela, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak Iñaki Murua lehendakariak Subijana etxean jorratuko dituzten ildo nagusien berri eman zuen. «Bertsolaritzaren transmisioa, sustapena, ikerkuntza, komunikazioa eta administrazioa», Lanku Bertso Zerbitzuak ere bertan izango dela gaineratu zuen Muruak.

Aspaldiko ametsa bete dute Bertsozale Elkarteak. Izan ere,

orain arte bitan banatuta egon dira, batetik, Donostiako Igeldoko Sirena etxean, eta bestetik, hiriburuko Abuztuaren 31ko kaleko Kutzaren lokaletan, bertan baitzegoen Xenpelar Dokumentazio Zentroa. Egoitzak, hortaz, «elkartzeko» bidea emango die. 2003. urtean hasi ziren egoitza berriaren bila eta urteak eta «bilera ugari» pasata lortu dute azkenean eraikin berria, «hainbeste espero ez bagenuen ere», azaldu zuen Muruak.

Inaugurazio ofiziala goizean izan bazen ere, arratsaldean izan zen bertsozale guztientzako inaugurazio ekitaldia. Lehenik eta behin bertso-erronda egin zuten Villabonako kaleetan zehar eta ondoren, ongi-etorria egin zuten balaitik eta bertso saioa, Oinkari dantza taldeko eta musika eskolako kideen emanaldia, luntxa eta erromeria izan ziren.

Laburrak

Xopapo eta Ezinean kontzertuak Gaztetxean

ANOETA » Gaur 23:00etatik aurrera Xopapo eta Ezinean taldeen kontzertuak izango dira Anoetako Gaztetxean. Xopapo taldea gazteiztarra da eta punk-rocka lantzen du batik bat. Azpeitiako Ezinean taldeak ere musika estilo bera egiten du, nahiz eta, melodia desberdinekin uztartzen dituzten.

Ezker abertzalearen batzarra izango da bihar

ANOETA » Anoetako ezker abertzaleak batzarrera deitu du biharko 11:00etan udaletxean. Bertan, bantzea egiteaz gain, 2008-2009 ikasturte politikoari begirako ildo politikoaz hitz egingo dute. Ezker abertzaleak kide guztiei animatzen die biharko batzarrarean parte hartzera.

Tai Chi ikastaroa antolatuta dute astelehenetan

LARRAUL » Tai Chi ikastaroa antolatuta dute Larraulen. Astelehenetan izango dira eskolak, 17:30etik 19:30era. Hileko kuota 32 eurokoa da eta ikastaroa herriko Kultur Etxean izango dela argitu dute. Aipatu behar da Tai Chiaren helburua gorputzari oreka eta harmonia eskaintzea dela.

Candesa Camargoren aurkako partida Belabietan

IBARRA » Ibarroko areto-futboleko taldeak Kantabriako Candesa Camargo taldearen aurka jokatu du bihar, larunbata, herriko Belabieta kiroldegian 18:30etik aurrera. Aurkeko partidetan bezala, oraingoan ere, baja ugari ditu taldeak, horien artean Unai Labaca eta Cristian Davila jokalariena.

Gaur irekiko dute Vanessa Alzateren erakusketak

TOLOSA » Gaur inauguratuko dute, 19:00etan Tolosako Aranburu Jauregian, Vanessa Alzateren erakusketak. Bertan, gazteak orain arte jorratu dituen esparruak aurkezten ditu: eskultura, pintura, collageak, agufueteekin egindako grabatua eta eremu publikoan egindako interbentzioak, besteak beste.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Motorra.** KYMCO 125 c.c. motorra salgai. 2006. utekoa. 6.600 km. Egoera oso onean. 665 738 525.

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Ikaztegietan. Herriaren erdigunean kokatua. Igogailua eta bi balkoi eder ditu. Deitu iluntzetan 628 698 807 edo 666 615 766 telefono zenbakietara.

BERRIAREN edizio digitaletan diseinatzale/programatzaile lanpostua betetzeko pertsona bat behar da. (Enf. 200810 EH-DP)

Honako ezaugarri haiek bete behar ditu:

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio lenguaiekin eskaintzen diren itales.
- XHTML eta CSSrekin markatzen diren itales.
- Photoshop eta Flash programak ezagutzak.

Eskaintzen da:

- 12 hilabeteko kontrata luza dafelak.
- Lanarekin berehala hasita lanarari.

Bidali curriculum gb@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zahartzuz, urriaren 22a baino lehen.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ekitaldiz betetako saskiaz gozatuko dute bihartik hasita

Alegia » 'Udazkenean Kultura' deitu diote hilabete eta erdiz herrian izango duten kultur jardunaldi sortari.

NEREA URBIZU

«Zumea, zumitza, gaztainondoa, hurritza. Ardatza, gainetik, azpitik, alternatu, errematatu, sartu, baztertu, ehotu. Otarra, saskia amaitsu. Lepasaskia, lursaskia, eskusaskia... Kultur saskia». Herritarrek osatutako kultur saskia; hori da bihartik azaroaren 30era arte Alegian izango dena, kulturari lotutako hainbat ekitaldi, eta herritarrek osatua eta herritarra protagonista izanda berri ere, Maider Jauregi Kultur batzordeko kideak gogoratu bezala.

Aurten, *Udazkenean Kultura* deitu diote jardunaldi hauei: «Zumitza elkarlotuz egin dugun saskia da: borondate handiko lagunengan artean jasotako uzta dago barruan. Saski bete ekitaldi. Iaz bezala, handik pixka bat, hemendik pixka bat... Hilabeteko egitaraua zena ia



Kultur batzordeko kide batzuk eta beste hainbat parte-hartzaile. IMANOL GARCIA

bi hilabeteko bihurtu da. Herritarrek hauetan parte hartzeko aukera asko dauzkate: etziko azokan edota abesbatzen emanaldian, agian bertso afarian, baita zine-forumean ere, eta ipuin kontaketa, erakusketan, dantzari egunean...

Txintxarriren kontzertua bihar

Bihar, beraz, Txintxarri abesbatza arduratuko da *Udazkenean Kulturako* jardunaldiei hasiera ematez, Astigarragako Aiztondo abesbatzarekin batera. Elizan emango dute kontzertua 19:45etik aurrera. Bi abesbatzen arteko harremanetik sortu da emanaldi hori.

Txintxarrikoek kantatuko dute aurrea. Bost abesti eskainiko dituzte Garbiñe Orbegozoren zuzendaritzapean. Jerry Estesek konposatutako meza garaikidetik *Adoramus te* eta *Gloria* kantatuko dituzte. Gainerako kantuen artean, Carlos Gardel kantariak ezagun egin zuen *Caminito* tangoa edota *Bilibilibonbolo* kantua. Ingeleseko kantuek ere tokia izango dute emanaldian.

Segidan Aiztondo abesbatzakoak igoko dira aldarera. Bederatzi kantu eskainiko dituzte Igor Arrotyoren gidaritzapean. Dmytro Bortnianskyren *Tebe poem* abestuko dute lehenengo. Euskal konpositoreek idatzitako doinuak nagusi izango dira: Bustoren, Soroz-

bal, Guridi, Azpiazuren edota Lesbordesen obrak eskainiko dituzte, besteak beste.

Bukatzeko, Aita Donostiaren bi kantu abestuko dituzte bi abesbatzek elkarrekin: *Jaiki, jaiki, etchekuak* eta *Chorittua, nurat hua*. Ondoren abesbatzek afari-legea egingo dute elkarrekin herrian bertan.

Bestalde, Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak Txintxarri Eguna ospatuko du aurten ere, azaroaren 16an. Egun horretan Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzak kontzertua eskainiko dute: horrez gain, bazkaria egingo da. Datoen egunetan jarriko dira salgai bazkarira joateko txartelak.

Etzi, barazki eta animalia azoka Bulebarrean

Etzi Barazki eta animalien azoka izango da Bulebarrean eta postu guztiak herritarrek osatutakoak izango dira, goizean zehar. Ez da prestatu duten azoka bakarra izango, 2. eskukoa ere badelako. Bertan salduko duten materiala biltzen hasiak dira eta zerbait eraman nahi izanez gero, azaroaren 10era arte Kultur Etxera eraman behar da. Horrekin lotuta proiektzio ere antolatu dute.

Alegiari buruz DVDA ere egin dute eta aurkeztuko ere aurkeztuko dute: aurten ere kultura eta herria batuko dituzte, beraz.

» UDAZKENEAN KULTURAREN BAITANGO EGITARAUA

Egunez egun

■ **Urriak 18, larunbata.** 19:45ean elizan Astigarragako Aiztondo eta Txintxarri abesbatzen kontzertua.

■ **Urriak 19, igandea.** 11:00etan Bulebarrean II. Nekazal azoka.

■ **Urriak 22, asteazkena.**

18:00etan liburategian ipuin kontaketa, Armaia Zinkunegiren eskutik.

■ **Urriak 25, larunbata.** 11:00-13:00 Kultur Etxean *Herria kantuan* emanaldiaren proiektzioa. Antton Iztueta, Eduardo Arrayet.

■ **Urriak 26, igandea.** Herriko plazan Dantzari Txiki Eguna.

■ **Azaroak 4, asteartea.** 19:30ean

Ipar Potosirekin bat. Kultur Etxean (Proclade erakundea).

■ **Azaroak 6, osteguna.** 18:30ean, Kultur Etxean hitzaldia: *Komikien sorkuntza*. Joseba

Antxustegiartek bideratuko du.

■ **Azaroak 9, igandea.** 11:00etan, Larraitz auzoan ginkana.

Languarre txirrindulari elkarteak antolatuta.

■ **Azaroak 12, asteazkena.**

19:00etan, Kultur Etxean *Alegia bame barnetik* herriari buruzko DVDaren aurkezpena.

■ **Azaroak 14, ostirala.** 17:30ean, Kultur Etxean haur antzerkia 1,2,3...

Inaxito (3. parte). Lanku taldea.

■ **Azaroak 16, igandea.** Egun

osoan zehar eta kaleetan barna Txintxarri Eguna.

■ **Azaroak 20, osteguna.**

18:00etan liburategian ipuin kontaketa. Apika taldea.

■ **Azaroak 21, ostirala.** 22:00etan

Kultur Etxean antzerkia: *Ogirik gabe etorri zen semea*. Edurne Agirrezabala da aktorea.

■ **Azaroak 22, larunbata.** 11:00-

12:30 bitartean, Kultur Etxean 2008ko herriko festak argazki proiektzioa. Alegiako argazkizaleen taldearen eskutik.

■ **Azaroak 23, igandea.**

11:00etan, Bigarren eskuko azoka herriko plazan.

■ **Azaroak 27, osteguna.**

20:00etan Kultur Etxean immigrazioari buruzko zine-foruma: *Flores de otro mundo*.

■ **Azaroak 28, ostirala.** Herrian

zehar eta Intxurre Elkartearen bertso poteoa eta bertso afaria, Unai Muñoa eta Iñaki Gurrutxaga bertsolariekin. Zazpi astoreen gainean bertsozale taldea.

■ **Azaroak 29, larunbata.**

22:30ean, frontoian dantza emanaldia: *Aspaldikotik*. Oinkari dantza taldea.

■ **Azaroak 30, igandea.**

08:30ean, Tontokaletik Mendi irteera Zaldibitik Orendainera (Alegiako Mendi Asanblada).

■ **Oharra.** Eguraldi txarra egiten badu, kanpoan izango diren ekitaldiak Elorri pilotalekuan egingo dituzte.

Erakusketak

■ **Urriak 27tik 31ra.** 18:00etatik 20:00etara, Kultur Etxean *Herria kantuan* emanaldiaren proiektzioa izango da.

■ **Azaroak 3tik 7ra.** 17:00etatik 20:00etara, Kultur Etxean Komiki erakusketa (Joseba Antxustegiartek).

■ **Azaroak 17tik 20era.** 18:00etatik 20:00etara, Kultur Etxean 2008ko herriko festak argazki proiektzioa.

25 urte eta gero Lasa eta Zabala gogoan

POLITIKA ■ 25 urte igaro dira Lasa eta Zabala erail zituztela. Urtero bezala, euren senide eta lagunek lore eskaintza egin nahi izan zieten Benta-Haundin haien omenez jarritako monolitoaren aurrean. GALen lehen ekintza izan zen, 1983. urteko urriaren 16 hartakoa. Errudunak Espainiako Auzitegi Nazionala epaitu zituen eta guztiak batuta 365 urteko kartzela zigorrak ezarri zituzkien. Haatik, egun Galindo, Elgorriaga, Vaquero, Bayo Leal eta Dorado dagoeneko kaleratu dira. ASERIMAZ





Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Hernalde.** Gipuzkoako Urak-eko Gerentea den Iñigo Elosegirekin bilera dizango da. Udal liburutegian 20:00etan. Uraren inguruko bilera informatibo bat izango da.
- **Tolosa.** 1963an jaiotako Eskolapietako ikasle ohien bazkari herrikoia Fronton jatean urriaren 25ean. 13:30ean Trianguloan elkartuko dira. Izen-emaitea, escolapios1963@hotmail.com.
- **Tolosa.** 1958an jaiotakoek afari herrikoia egingo dute Fronton jatean azaroaren 15ean. Izen-emaitea, 619 42007 telefonoan (50 euro).
- **Tolosa.** Mendiko bigarren eskuko materialaren merkatu txikia Oargi mendi elkarteak, azaroaren 1etik 9ra, 18:00etatik 21:00etara. Material salgai jarri nahi duenak, Oargin aurkeztu edo 688 698642 telefono zenbakira deitu.

Musika

- **Tolosa.** Karelean eta Napoka iria taldean kontzertua Bonberenean 22:30ean.

Mendi irteerak

- **Tolosa.** Mendi irteera Neouville (3091 m.) eta Turon de Neouville (3035 m.) igotzeko. Bidaia autoz egingo da. Ostiral gaua Baregesen, larunbata La Glere aterpetxean. Izena: info@oargi.org, 688 698 642 edo www.oargi.org.
- **Tolosa.** Sara - Zugarramurdi mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek hilaren 26rako. 7 ordu ordurako ibaldia da Larrun (900 m), Ibantelli (698 m) eta Atxuria (756 m) mendiak igoz. Izen-emaitea, elkarteak (943 652789).

Eskulturak

- **Tolosa.** Isabel Mujikaren olio-lanak eta akuarelak ikusgai Errota tabernan, paisajeak eta bodegoiak batez ere.
- **Tolosa.** Marce Tena ibartarrak gai eta teknika desberdinetako hamabi koadro ditu ikusgai Lanbroa tabernan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112..
- **Irurtzun.** Gastarena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.

Sukaldari trebeak San Estebanen

Tolosa » Patata tortilla lehiaketa eta antzerkia izan ziren Kultur Asteak; gaur, bihar eta etzi ere hamaika ekitaldi izango dira.

ERRDAKZIOA

Urtetik urtera indartzuz doa San Esteban auzoko Kultur Astea. Aurteagorekin 21 dira eta ez dute eteteko asmorik. Pasa den asteburuan ekin zioten eskualdean ospe handia hartu duen herri krosarekin, askorentzat Behobia prestatzeko oso baliagarria izaten dena. Atzo ere izan zuten zer gozatua Tolosako auzoan. Iluntze aldera patata tortilla lehiaketa egin zuten, ondoren prestatu ziren guztiak luntz ederra egin zutelarik. Gauean, berriz, *SOS temible* antzezlanaren taularatu zuen Txiflango Inproducciones antzerki taldeak.

Bihar ere asteburuari gogor ekingo diote Kultur Asteak ekitaldiak; hala, arratsaldeko lehen orduetan, 16:00etan, altxoraren bila eta Mus txapelketa egingo dituzten; 16:30ean Haur jolasak izango dira; 18:00etan Buruhandiak; 19:00etan Txokolate jatea Bonberenea txarangak alaituta; 24:00etan Kantaflor taldearen kontzertua eta ondoren DJ Jokin.



Parte-hartzaileek euren dohaina erakutsi zuten patata tortilla lehiaketan. I. GARCIA

Etzi, Kultur Astearen azken eguna

Etziko egitarau aparoarekin emango diote amaiera Kultur Asteari. Auzokoek nahiz kanpokoek ere gustura hartzen dute parte ekitaldietan. Esaterako, umeen jolasak arrakasta handia izan ohi dute.

Goizetik musikarekin jaikiko dira auzotarrak, txistularien diantarekin. 10:00etan, berriz, trikitixa

izango da auzoko baserrietan. 11:00etan meza izango dute auzoko hildakoen alde, San Frantziskon.

Eguerdian, berriz, toka txapelketa izango da eta babarrun jateak hartuko dio lekukoak, 14:00etatik aurrera. Bertan Goterak tolosarra-

ri omenaldia egingo diote, eta Tonttor elkarteak abestia kantatuko dio. Ondoren, jaiei amaiera emateko, dantzaildai izango da Koxkorrena orkestrarekin. Ondo pasatzeko aitzakiarik ez da faltako, beraz, asteburu honetan, San Esteban auzoan.

A Agurrak



Zorionak!

Lukasa eta Julia Arandia (Alegia). Urriaren 11n urrezko etzeiki ospatu zituzten. Zorionik beroenak opa dizkiegu familiarean partetik.

